



❖ OHITURA ZAHARRAK  
**Hitzaldia bihar,  
nola jantzi  
baserritar arropak**

Ane Albisu Ikerfolk taldeko kideak, hitzaldia emango du bihar Biterin, 19:00etan: *Gure tradiziozko jantziak nola atundu*. Ohitura Zaharrak Abesbatzak antolatu du hitzaldia, eta helburua da, jendeak jakitea, urtero jantzen duen baserritarren arropa hori nola jantzi behar-ko litzatekeen. ||

# Lau etorkin, lau historia...

Fatima, Yamilet, Ibrahim eta Damianek kontatuko dute, nola bizitu zuten beren herritik aldegin eta beste herri batera bizitzera joatea. Aurretik, 'Pangea' bideoa emango dute. Biterin, larunbatean, 17:00etan.

BIDEO bat emango dute lehendabizi eta gero lau etorkinek hitz egingo dute, larunbatean Biterin, Amher-SOS Arrazakeria taldeak antolatuta. Migranteen Nazioarteko Eguna da etzi, abenduak 18, eta hori dela eta prestatu dute hitzaldia, azken urteetan munduko zenbait herritatik Hernanira etorri direnei erre-konozimendu gisara. «Etor-kin horiek bizitzeko aukeratu dute gure herria, eta gure artean daude, beraien bizi-proiektuekin, zailtasunekin eta ilusioekin».



Gastronomia jardunaldiak goian, eta Fatima Nciri marokoarra eskubian, gaur hitzaldia emango duenetako bat.



Yamilet (Kolonbia), Fatima (Maroko, goien argazkian), eta Damian (Argentina).

Zergatik aukeratu zuten Hernani? Nola ibili ziren iritsi berritan? Zein itxaropen zituzten? Hizlariak azalduko dute, herrialde berri batera iristean zein zailtasun aurkitzen dituen pertsona batek: lana, etxea, erroldatzea... Edo baita zailtasun pertsonalak ere: eskubide-gabezia, familia-falta, diskriminazioak...

Kontatuko dute, baita ere, zailtasunei aurre egiten eta konpontzen nola ari diren. ||

**Maitena Salinasen 'Pangea'** Batetik *Pangea* bideoa proiektatuko dute, ekitaldi hasieran, Maitena Salinas zuzendaria-rena. SOS Arrazakeriak egin du bideoa, *Gipuzkoa Solidarioa* ekintzarako.

**Lau etorkin: Damian, Fatima, Yamilet, eta Ibrahim** Pelikula ikusi ondoren, lau herritatik etorritako lau pertsonak hitz egingo dute, eta beraien bizipenak kontatuko dituzte: Ibrahim (Mali),

AMHER: «Nahi dugu Hernani konturatzea, etorkinek lan egiten dutela hemen, eta parte hartzen ari direla gure herria eraikitzen»

❖ BARAZKIAK

**Barazki ekologikoak etxean nahi?**

Barazki ekologikoak produzitzen ditu Uztaro Kooperatibak, eta gaur aurkeztuko du bere lana, proiektua, Hernanin. Barazki ekologikoak saskietan nahi dituenik baldin bada, aukera ona izan lezake gaurkoa. Biterin, 19:00etan. ||

❖ KONTRAKANTXA

**Gaubela haundia, okupazio egunean**

Gaur bete dira lau urte Kontrakantxa Gaztetxea okupatu zutela. Hori ospatzeko aste guztian ari dira ekitaldiak egiten, eta gaur, Gaubela Haundia egingo dute, 20:00etatik aurrera. ||

❖ HIRIGINTZA BATZORDEA

**Arau Subsidiarioak azken txanpan**

Hirigintza eta Ingurumen Batzordea bilduko da gaur Udaltxeko Areto Nagusian, 18:00etan. Arau Subsidiarioen ebazpenak onartu eta behin behineko onarpena eman diezaiokete gaur. Hiru Udal etxebizitza alokairuan jartzeari buruz ere ariko dira. Galarretako Parke Teknologikoa egiteko lehenengo fasea, eta Hernaniren eskaera, Galarreta-Orona-Mondragon Unibertsitatea fundazioan kide izateko. ||

❖ EZKER ABERTZALEA

## Legalizazioaren alde, giza kate erraldoia, larunbatean Hernanin

Hernaniko Ezker Abertzaleak dei egin die herritar guztiei, ekitaldian parte hartzera. Larunbatean, 13:00ean, Plaza Berrin. Beste herrietan ere egingo dira giza kateak egun berean.

EZKER Abertzaleak deituta, legalizazioaren aldeko ekimen haundi bat egingo da Euskal Herriko herri eta auzoetan. Hernanin, giza kate erraldoia egingo dute, larun-

batean, 13:00ean, Plaza Berritik abiatuta.

«Proiektu politiko guztiek aukera berdinak» Ezker Abertzaleak bidalitako

prentsa oharrak dioenez, herritarrek eskubidea daukate nahi duten proiektu politikoak aukeratzeko; horregatik animatu nahi dituzte herritar-  
rrak, ekimenean parte har-

tzera, «argi adierazi behar dugu, eta aldarrikatu behar dugu, jendartearen gehien-  
goak aukera berdintasuna behar duela, proiektu politiko guztientzako». ||

**18an babesa eman!**

Abenduak 18  
**GIZA KATE ERRALDOIA**

Hernaniko kaleetan  
13:00etan Plaza Berrin

orain!  
**Legalizazioa**

Gora ezker abertzaleak!

*Maite*  
OINETAKOAK

**LIKIDAZIOA !!**

ETXEKO ZAPATILAK -%20

BOTAK ETA ZAPATAK -%30

IXTERA GOAZELAKO...  
ESKAINITZA BEREZIAKI!!

ZATOZ !!

Kale Nagusia, 3

Tel. 943 55 26 91

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
FARMAZIAK ● **Egunez: Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz: Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goiza oso hotza, eta eguerdi aldera epeltzen joango da. Euria goiz eta gau-partean egingo du. Ipar-mendebal zakar jo dezake gauean. Min.-1° / Max.7°  
**BIHAR** Euri dezente espero da biharko. Ipar-mendebal laino hezeak ekarriko ditu, eta euria egingo du. Elur-bustia egin dezake momentu batzutan, herrian ere. Min.2° / Max.5°  
(euskaime)

❖ GABONAK - Kontzertuak - bihar, larunbata eta igandea

## Hiru kontzertu hiru egunetan; bihar, Doinu Zaleko ikasleak

Doinu Zaleko zazpi ikaslek emango dute kontzertua bihar, 19:00etan. Larunbatean Ozenki eta Musika Bandak joko dute, 19:45etan. Igandean, Txistulari Banda eta gitarra-jolea, 13:00ean. Hiru kontzertuak, Milagrosan.

HIRU musika emanaldi izango dira, igandera bitartean Hernanin. Bihar Doinu Zale musika eskolako ikasleek emango dute kontzertua, Imanol Kamio ereñotzuarrak zuzenduta. 8 urtetik 19 urte bitarteko ikasleek joko dituzte, eskusoinua, pianoa eta trikitixa. Zazpi ikaslek bina kanta joko dituzte; 14 kantako ikuskizuna izango da, beraz. Peru Arregi, Maddi Arregi, Markel Oiarzabal, Ane Carrizo, Irati Jauregi, Iñaki Lizarralde, eta Iker De Las Heras. Zailtasun dezentekoa duten kantak eskainiko dituzte gainera. Esaterako: Bachen *Tocatta eta fuga Re minorrean*, Albenizen *Asturias*, edo Beethovenen *Pathetique*.



Peru Arregik bihar joko du, Doinu Zaleko beste sei kiderekin batera.

### Gabonetako Kontzertua, larunbatean,

Musika Bandak eta Ozenki Gabonetako kontzertua aurtan ere eskainiko dute Musika Bandak eta Ozenki Abesbatzak. Larunbatean

izango da, Milagrosan, 19:45etatik aurrera.

**Txistu Kontzertua igandean** Eguberriko Txistu Kontzer-

tua igandean emango du Txistulari Bandak, gitarrarekin laguntzarekin. Milagrosan izango da, 13:00etik aurrera. ||



**Gabonetako menua, zein baino zein hobea.** Donostiako Irizar Eskolako bi ikaslek eman zuten atzo sukaldaritza ikastaroa, Xalaparta elkartearen, 35 bat lagunuen aurrean. Xabier Urdangarin eta Pilar Carbonellek pausoka-pausoka azaldu zituzten hiru menu, Gabonetarako zein baino zein hobea. Bakailao tinbala, piper gorri, berde eta tipularekin; legatza ontto saltsarekin betea; eta txokolate likidoa... Gabonak noiz iritsi zain izango dira gehienak! ||

❖ UDALA - URTEKARIA 2010

### Hernani gertu-gertutik, 2010 Urtekarian

Urtekaria aurkeztuko dute bihar, 19:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian. Hernani 2010 Urtekaria, Hernaniri buruzko albistez josia dator aurtan ere: historia, artea, natura, kirola, gaurkotasuna... Salgai ere jarriko dute, herriko liburudendetan, 8 euroan. ||

❖ ELUR TXORIKO MUS TXAPELKETA

### Lau partida gaur, Elur Txorin

Elur Txoriko mus txapelketa jokatzan ari dira, eta gaur lau partida dituzte: Polo-Alvarez / Alvaro-Pablo; Angel-Txemari/Kixko-Joshan; Mikel-Olazar / Gorka-Uriarte; Eneko-Josu/Pako-Joxan. ||

❖ ZUMITZA

### Lizentziak egin eta arropak hartzeko, gaur

Zumitza taldeko lizentzia egin edo arropa nahi duenak, gaur du eskuratzeko aukera, 19:00etatik 20:00etara, Zumitzan bertan. Aurtan, txirindulari taldeaz gain, triatlói taldea ere sortu dute; beraz, bat edo beste egin nahi duena joan liteke lasai asko. Lizentzia egiteko, 85 euro ordaindu behar dira Kutxako kontu zenbaki batean, eta agiria presentatu Zumitzan. Kontu zenbakia: 21010041030127163806. Abenduaren 21 eta 23an ere izango da aukera, gaur bezala. ||

❖ JOCC ZIKUÑAKO AMA

### Bilera bihar, haurren taldeak sortzeko

Txirindulari taldea sortu nahi dute alebin eta infantil mailan, eta horretarako, bilera egingo dute bihar, 19:00etan Biterin. Parte hartu nahi duen guztiak dauka bilerara azaltzea. ||

❖ GURE ETXOLA

### Loteria hartzeko azken aukera, gaur

Gure Etxola elkarteak gaur du azkeneko eguna Loteria banatzeko. Interesa daukanak bertatik pasa beharko du. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisu bila nabil alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna). Deitu: 600 609 754.

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldaria. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordainketan. Deitu: 629 682 827.

Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak. Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak.

"Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**TRIPA BETE NAHI?**

sabemos castellano

**taberna triponzi**

PINTXOAK, RAZIOAK, ENTSALEDAK, PLATER, BONBINATUTAK

**ZATOK DASTATZERA!**

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724